



Segidan, balorezko proposamenen ondoren, **bezeroekiko harremanak** ditugu. Gure enpresa bezeroengana iristeko hainbat formatan egingo dugu. Iragarkiak izango dira gehien erabiliko dugun metodoa, horretarako hiru forma desberdinetan egingo ditugu iragarkiak:

-Aldizkarietan izango litzake lehenengo metodoa. Naiz eta orainaldian gero eta gutxiago erabili, oraindik jende askok erosten du.



-Telebistako iragarkiak izango litzateke bigarren metodoa. Telebista oso erabilia denez gaur egun, bezero askok ikusiko lituzke gure iragarkiak eta bezero berri asko erakarriko zituen.



-Azkeneko iragarki mota sare sozialak izango litzakete. Gaur egun gehien erabiltzen diren plataformak direlako. Momentuko aplikazioetan sartuko ditugu iragarkiak, horrela jende gehiagori iritsiko zitzaien.






Gure enpresak bezeroarekin izango duen harremana zuzena izango da, hau da, haiekin harreman pertsonala mantenduko dugu aurrez aurre telefonoz edo gure webgunearen bitartez.



Gure bezeroekiko lotura epe luzekoa izango da, harreman intimo eta estua sortuz denbora luzez. Hori ikusten dugu harpidetza harreman batean. Bezeroak erraz hautsi ezin den lotura izango du, ez baititu Cars and Factory-ren abantailak lortuko




Bezeroarengan interesa sortuko dugu gure diseinu erakargarriaren bidez, ikus-entzunezko publizitatea jarriko dugu martxan.

Bezeroarekin lehen harreman zuzena egiten duten sustatzaileak ditugu.

Urrutiko harremana ere eskaintzen dugu gure online webgunean:

[sakatu hemen webgunea ikusi nahiko bazenute](#)



Dendan harreman zuzena mantentzen dugu kontsumitzailearekin: bezeroak gure langileekin aurrez aurre eduki ahal izango du elkarrizketa bat.

Bezeroari arreta emateko sistema bat eskaintzen dugu “chat” eta telefono bidez.

Sare sozialak erabiliko ditugu gure eredu berriak sustatzeko: Instagram eta Twitter.

Bezeroekiko tratua kordiala, profesionala, intuitiboa (plataforma digitalean), eroso, argia eta konplexurik gabekoa, doan, demokratikoa eta itxia (gurekin dagoela sentiaraztuko diogu).

